

Bernio gara



**Ipintzako
txapelketa**
Uda parteko futbola



Miguel ALTUNA institutua

AENOR



Enpresa
Erregistratua



ER-0528/2/98



QUALITY SYSTEM

2001/2002 ikasturterako
Hezkuntza-eskaintza

kalitateko eskaintza



GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxugintza
- Idazkaritza (bi hizkuntza: ingelesa eta frantsesa)

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrazio kudeaketa

Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 12ra
Orduetgia: 09:00etatik 13:00era

- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Miguel Altuna Institutua. Ibargarai, 1. Tel. 943 76 24 91 eta 943 76 38 40. Faxa: 943 76 38 41
Posta elektronikoa: imaltuna@sarenet.es eta 013020aa@hezkuntza.net
www.imaltuna.com

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara edo etorri maiztaren 30ean 18:00etan: **Ate Irekiak** izango dituzu!



Ainhoa Agirreazaldeg

Heldu da. Orain lau urte ia itsasoa non amaitzen zen ikustea bezain zaila iruditzen zitzaiguna, karrera amaiera alegia, iritsi da. Iritsi gara esatea ere zilegi izango da, ikasleok trebeak izaten baikara lorpenak geure buruari eta pauso okerrak besteri egozten.

Bitxia da zein urrun ikusten den hasieran eta zein azkar pasatzen den. Gehienok, hala ere, amaitzeko gogoak daukagu. Ez beharbada ikasle-zikloa utzi nahi dugulako, giro berriak bilatu eta erronkak, azaletik bada ere, aldatzeko gogoak daukagulako. Izan ere, behin lehen urtea igarotakoan, karrera ere beti-batekoa bihurtzen da, monotonia, egunerokotasunaren zaporea hartzen du eta bizitasuna galtzen. Hogei urtean lan eta lantoki berean ari denak gaizki hezitako umemoko bat naizela pentsatuko du agian, baina ikasle izan denak ulertuko nau. Gure lana notek epaitzen dute, eta lau urtean ia hirurogeita hamar nota jaso ondoren, hirurogeita zortzigarrena erronka gisa planteatzea ez da erraza.

Gurea ez da karrerarik zailena, baina tarteka erruz lan eginarazi digute. Hala ere, gehiago eska ziezaguketela eta eskatu beharko liguketela pentsatzean bat gatoz gelakide asko. Behin baino gehiagotan haserretu gara ikasleok irakasleek baino ilusio handiagoa adierazi dugulako, eta ez da karrera amaieran egindako aipamena bakarrik, bigarren urtetik dator. Ni ez naiz ikasle garaia garairik onena dela diotenen iritzirik berekoa, aitzitik, zailagoa behar lukeela uste dut. Guk okerren ez dugu azterketekin pasatu, eskatu dizkiguten lanekin baizik. Pentsa zenbat ordu eta izerdi utzi dugun lan horietan, gelakide baten amonak hainbeste alditan lanerako elkartzeara posible ez zela-eta, bere bilobarik maiteenari -lanean oso neska

«Ikasteari ez genioke inoiz utzi behar, eta lan munduan geure burua zaildu ere egin beharko genuke. Egokiena, biak tartekatzea da»

fina den bati- orain ere arituko zineten berriketan eta parrandan esateraino. Eta ez naiz gure amonaz ari. Egun batean bai eta hurrengoan ere bai lanerako elkartzan ginen garaiez ari naiz. Orain azken azterketetan gaude, eta jendea hondartzara joaten da arratsaldetan. Horrexegatik diot gehiago eskatu beharko liguketela. Beharbada karrera ondorengo bidearen zailtasunak gogoa hartuz, aurretik gauzak gehiegi ez zailtzea pentsatuko zuten.

Eta orain zer? Batez ere ilusioa. Gazteak gara, lanerako (ikastea ere lana da) indar eta ahalmenik gehien geuk behar genuke. Ikasteari ez genioke inoiz utzi behar, eta lan munduan geure burua zaildu ere egin beharko genuke. Egokiena, nire ustez, biak tartekatzea da, balantza baten nahiz bestearen alderago egonda ere, biak elkarren osagarriak ez ezik oso garrantzitsuak baitira elkarrentzako. Teoria praktikarekin nola uztartzen den ikusi, eta arlo praktikoa aulkian erosoegi sentitu gabe, ipurdiaz gain burua ere ahultzeko arriskua dagoelako.<

barruan



Rufina Olasagasti

Kultura gestorea

«Herriko hainbat taldek laguntzen digute jaietako egitaraua antolatzen»

6.



A. Txintxurreta

Antxoni tabernakoa

«Etxean ez zeguan tabernarako erreleborik eta alkilerrian jarri dogu»

13.



Arkaitz Arana

BKEko futbol jokalaria

«Zuzeneko arerioen kontra huts egitea erabakigarria izan da mailaz jaisteko»

21.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Leonardo Da Vinci dirulaguntzak. Confebask. 35 urte baino gutxiagoko lizentziadunak edo azken mailan diharduten ikasleak. Atzerriko enpresatan praktikak egiteko bekak. Epea: ekainak 15.

JARDUERAK

Donostia. Gizaide. 18 urtetik gorakoendako. 2001eko auzolandegiak Gizaide Fundazioan. Caritas elkartearen Donostiako Buruko Gaixotasunen Eguneko Zentroa. Epea: ekainak 15.

Martutene. Caritas. 21 urtetik gorakoendako. Martuteneko presoeikin lan egiteko auzolandegia. Epea: ekainak 29.

Hirugarren Mundua. Elizbarrutiko Elkartasun Plataforma. 17tik 20 urtera bitartekoendako. Altzon egingo den auzolandegia, Hirugarren Munguaren gaia lantzeko. Epea: ekainak 30.

IKASTAROAK

Telebista. Sarobe. Telebistako eta antzerkiko interpretazioen arteko oinarrizko desberdintasunak. Epea: ekainak 24.

Valentzia. Menendez Pelayo Unibertsitatea. Animazio-zinemarako nazioarteko gidoi-tailerra. Epea: Maiatzak 31.

SARIK

Literatura. Kutxa Fundazioa eta Donostiako Udala. Ipuingintza eta antzerki sariak euskaraz / gaztelaniaz. Epea: urriak 5

Multimedia. SGAE. Web orriade eta multimedialeko CD-ROM hobereak. Epea: irailak 20.

LANA

Astialdiko begiraleak eta kanpamentuetako sukaldariak. CPN Azterleriak. Curriculum Vitae eta argazkia bidali: 3253 posta-kutxa. 01002 Gasteiz.

Kiroldegiko igerilekuko monitorre-soroslea. Ofatiko Udala. Eskola-graduatu, LH-1 edo baliokidea eta igeriketa monitorea eta ur-sorosle titulua. Epea: maiatzak 28.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketan eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ei nahiz probintzia gutziko informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru


Bialeku

Lan txarra, problema.

– Lanik ezak oinddio bialeku aundixak emungoittu.

– Auzo alkate izatiak bialeku ugari tta irabazi gutti.

Hitz polita eta erabilera onekoa; alperrik galtzen ari da. Batuko forma 'beharleku' esan behar ote da?



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Maiatzak 17, eguena	16 °C	13 °C	4,9 l/m ²
Maiatzak 18, egubakoitza	16 °C	10 °C	– l/m ²
Maiatzak 19, zapatua	20 °C	9 °C	– l/m ²
Maiatzak 20, domeka	20 °C	8 °C	– l/m ²
Maiatzak 21, astelehena	24 °C	8 °C	– l/m ²
Maiatzak 22, martitzena	24 °C	7 °C	– l/m ²
Maiatzak 23, eguaztena	23 °C	11 °C	– l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegaraieta

Domekak: 11:00.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja Zaharrak

Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 25:
ESTELA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

ZAPATUA 26:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

DOMEKA 27:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

ASTELEHENA 28:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

MARTITZENA 29:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUAZTENA 30:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUENA 31:
ESTELA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

OGIA

DOMEKA 27 Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza. 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak. 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak. 943 76 20 51

Kultur Etxea. 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa. 943 76 13 15

Jardun. 943 76 36 61

Idolaz. 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notaritza. 943 76 10 73

oharrak

■ **1958an jaiotako enafaria:** ekainaren 16an Txuringo jatetxean. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) Irrintzi edo Usoa tabernetan.

■ **1960an jaiotako enafaria:** ekainaren 23an Osintxuko Txuringo jatetxean, 21:30ean. Aurretik taldeko argazkia Osintxuko frontoian, 21:00etan. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) BBVA banketxean irekitako kontu korrontean ekainaren 15era arte egin daiteke.

■ **EH:** Azken hauteskundeetako emaitzen azterketa egiteko herri batzarrean parte hartzeko deia egin du. Batzarra, martitzenean, hilak 29, izango da, Miguel Altuna institutuko aretoan, 19:00etan.

■ **Pazkoetan Gaztetxean lan egiteko** zerrendak hainbat tabernetan daude. Egubakoitzean lan egiteko Gaztetxean eman behar da izena, zaturako zerrenda Pol-Polen dago, domekakoa Ziripoten, astelehenekoa Arranon eta Pazkoetako martitzenekoa Etxagin.

■ **Pazkoetan antzetzuko den 'Baserri' zartzuelarako sarrerak** salgai Lazkano oinetako dendan, Ariznoan eta Frontoiko tabernan, 1.000 pezetan.

zorionak!



Danel Urzelai
25ean 6 urte. Urte askotarako! Aita, ama, Gaizka anaia eta Oier lehengusua.



Gaizka Urzelai
30ean 9 urte. Urte askotarako! Aita, ama, Danel anaia eta Oier lehengusua.



Paula Aranzabal
26an 8 urte. Urte askotarako! Bergarako senideak.



Ana Etxaniz
29an 7 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Mikel.



Amaia Santamaria
26an 9 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Malen Gallastegi
31n 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Alex Arteaga
25ean 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Mikel Aristi
28an 8 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Ander Lasa
28an urtebete. Urte askotarako! Gurasoak.



Onintza Olano
26an urtebete. Urte askotarako eta muxuak! Etxekoak.



Jone Agirrezabal
31n 7 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Etxekoak.



Manex Bengoa
25ean 3 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Maddi.



Txasu
28an 25 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Oier Eguren
27an urtebete. Urte askotarako! Aibixta, amama, izeba eta Lirain.



Maria Rosa Agirre
26an urtebetezeta. Urte askotarako Arruriagako markesari!



Ander Plazaola
30ean 12 urte. Urte askotarako! Askotan gogoratzen dutenak.



Iker Aranzonaga
26an 13 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Beñat.



Oier Ugalde
25ean 5 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Olatz.



Aitor Rueda
29an 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Olatz Lezeta
25ean 24 urte. Urte askotarako! Auskalo nor.


jardunen agenda

■ **Kultur Errota:** maiatzaren 26an, zapatua, 22:30ean, Xabier Amurizaren bertso hautatuak Kartzela zaharrean.

■ **Hitzaldia:** maiatzaren 30eko hitzaldia (Koldo Zuazoren "Euskararen sendabelarrak") bertan behera geratu da.

■ **Jaixetako herri bazkaria:** Jadantik txartelak salgai ohiko tokietan.

Hurrengo alean, ekainaren 1etik 7ra bitarteko enafaren zorion agurrak argitaratuko ditugu.




Neska-mutikook, zatozte jolastera!

Amillaga 1 ean gaude. Telefonoa 943 76 94 52

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🔧 Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Pazkoen atarian gaude, ekainaren 1a gainean dugu. Buzoietan ere jaso dugu, dagoeneko, jaietako egitaraua. Nork eta nola antolatzen ditu, baina, egitarauko ekitaldiak? Rufina Olasagasti udaleko kultura kudeatzailearekin bildu gara, eta ondokoa kontatu digu.

G. Jaiak datorren egubakoitzean hasita, guztia prest egongo da, dagoeneko.

E. Bai, badao guztia. Hainbat gunetan ere badabiltza taulatuak jartzen.

G. Zenbat gune egongo dira ekitaldietarako?

E. San Martin plaza, Bideberri eta Espoloia. Bestalde, orain plaza berria ere badugunez, Xabier Maria Munibe, hain justu, hortxe ere izango da ekitaldirik. Horrez gain, udal pilotalekuan ere jaietako hasiera eman go dien ekitaldia egongo da, 'Baserría' zartzuela. Horiek dira gune nagusiak. Baina horiez gain, umeentzako beste bi ere izango dira: barrakak Matxiategin, eta jolas-parkea Ipintza IIko patioan.

G. Zein berritasun nagusi aipatuko zenuke aurten egitarauan?

E. Egubakoitzean izango den zartzuela, batetik. Aurreko urteetan Bergarako Orkestra Sinfonikoak egin izan du sarretarako ekitaldi nagusi hori; herriko beste talde batzuekin batera edo kanpoko talderen baten laguntzaz. Aurten, baina, aspaldi ez bezala, kanpoko talde batzuk etorriko dira. Azpeitiarrak dira, batez ere, baina baita, Aretxabaletako Abesbatza ere. Bestalde, erraldioen alardea dugu. Hori ere berrikuntza garrantzitsua da. Bi erraldoi berri ditugu, eta estreinurako alardea antolatu dugu. Zapatuan

RUFINA OLASAGASTI

Udaleko kultura gestorea

«Herriko hainbat taldek laguntzen digute jai egitaraua antolatzen»



Rufina Olasagasti arrasatearrak hamar urte daramatza kultur gestore gisa.

izango da, eta Urretxu eta Arrasateko konpartsak ere etorriko dira alardera.

G. Ez da lan makala izango bost eguneko jai egitaraua antolatzea.

E. Badu lana, bai. Bost eguneko egitarauan gauza asko sartzen dira. Bueno, esan behar da, batetik Jai Batzordea dagoela, baina, bestetik, badirela hainbat

talde herrian, urtean zehar lan egiten dutenak eta jaietan lan horren fruituak kanporatzen dituztenak. Esaterako, Moises Aspiazu dantza taldeko kideek astero-astero entseatzen dute. Baina, Euskadiko txapelketa Mendekostetan egiten dute. Eta horrelako talde gehiago dago, urtean lan egin, baina fruitua jaietan ematen dutena. Jai Batzordeak herriko taldeen laguntza du.

G. Zenbat denbora behar izaten da Pazkoak antolatzeko?

E. Lehendabizi musika talde, orkestra eta horrela-koekin egin behar da harremana. Izan ere, talde horiek herri askotako jaietan parte hartzeko gonbita jasotzen dute. Behin talde horiek finkatuta, urtarilean edo, pixkana-pixkana gainerako ekitaldiak antolatzen ditugu.

G. Zer hartzen duzue kontuan egitaraua egiteko?

E. Guztiendako gustuko zerbait egon dadila. Hori nahi izaten dugu. Izan ere badakigu oso zaila dela guztiei guztia gustatzea.

G. Egitaraua urtetik urtera oso antzekoa dela uste duenik ere bada.

E. Badira hainbat ekitaldi zale asko dituztenak. Egitarauan urtero daude rock jaialdiak, bandaren kontzertuak, entzierroak, enbolatuak... Ekitaldi horiek ikusleria egonkorra dute, iniziatiba onartuak dira. Eta ezin dira egitarautik kendu.

G. Zein dira arrakasta handiena duten ekitaldiak?

E. Neurtzea zaila da, hainbat faktore hartu behar dira kontuan. Ez da gauza bera, esaterako, ekitaldia goizean ala arratsaldean izan, eguraldia... Bideberriko rock taldeek jende asko erakartzen dute; bueno, musikak oro har. Entzierroek ere bai...

«Hainbat ekitaldik ikusleria egonkorra dute; urtetik urtera jarraitzen dituzten herritarrak daude. Eta egitarautik ezin dira kendu»


Ekainaren 11n irekiko dituzte kanpoko igerilekuak bainurako

Eguzkia hartzeko, hala ere, irekita daude martitzena ezker

Eguraldi onarekin batera, ireki dituzte aste honetan kanpoko igerilekuak eguzkia hartzeko. Bainurako oraindik ez, hori ekainaren 11n izango da. Bestalde, Agorro-singo kirolgunea berria egiteko beste urrats bat eman du udalak: proiektua adjudikatuta dago.

Joan den martitzenean ireki zituzten kanpoko igerilekuak. Momentuz, hala ere, eguzkia baino ezingo da hartu. Aurten, hala ere, asteburuetan irekita egongo da aurreko urteetan ez bezala, Pazkoetako asteburuan izan ezik. Beraz, astelehenetik domekara egongo da eguzkia hartzeko aukera, eta ordutegia honakoa da: 10:00etatik 18:00etara.

Bainurako ekainaren 11an irekiko dituzte. Ohiko ordutegi eta zerbitzuak eskainiko dira, eta hiru sorosle egongo dira: bat goizez eta 14:00etatik aurrera bi.



Kanpoko igerilekuek estalkia izango dute proiektu berriaren arabera. ARTXIBOA

KIROLGUNEA MARTXAN

Agorro-singo kirolgunea aurrera doa. Dagoeneko esleitu du udalak kirolguneako proiektua idaztea. Udalak kaleratutako ideia lehiaketara 16 enpresa aurkeztu ostean, Alvaro Perez de Amegaza donostiarraren eta Jorge Muntañola kataluniarraren aurreproiektua onartu dute, eta dagoeneko, esleitu die udalak proiektua idaz-

tea. Adjudikazioa 750 milioi pezetan egin dute. Gauzak horrela, lau hilabete dute proiektua idazteko. Beraz, urria ingururako proiektua idatzita egongo da.

Bi arkitektoen aurreproiektuan jasota dagoenaren arabera, igerilekuak, aurreko aparkalekuak eta Ipintza futbol zelaiak osatuko dute kirolgunea berria.

IGERILEKU BERRIAK

Futbol zelaiari dagokionez, area kendu eta belar artifiziala jarriko dute. Igerilekuei dagokienez, guztiz bota eta berreraikiko dira.


Bi solairu izango ditu, gaur egun moduan. Behe solairuan igerilekuak, bainu eta gimnasiarako aldagelak, gimnasia eta squash gelak eta sauna eta hidromasajea bezalako zerbitzuak egongo dira. Lehenengo solairuan kafetegia, sukaldea, bulegoak eta bilera gelak egingo dituzte.

Negurako bi igerileku egongo dira: txikia eta handia, biak estaliak. Udarako, bat, irekia. Hala ere, negua heltzean, estalki teleskopiko baten bidez itxi egingo dute udarako igerileku hori. Dena den, udalak hainbat aldaketa egin dizkio aurreproiektuari, eta behin betiko proiektua onartu aurretik ere herriko kirol taldeekin bilduko dira haien iritzia kontuan hartzeko.

Dagoeneko hasi dira jaietarako prestakuntzak

Jaiak gainean ditugu, eta nabaria da kaleetan. Dagoeneko hainbat gunetan oholtzak jartzen hasi dira, Bideberrin esaterako. Iargarain, autobus geltoki ondoan ere hasi dira zezen-plaza egokitzeke zozua lautzen.

Horrez gain, aurtengo egitarauko berrikuntza nagusienetarako, hau da, Udala Pilotalekuan egongo den 'Baserría' zartzuelarako sarrerak salgai daude dagoeneko: Lazkano zapatadendan, Ariznoa tabernan eta Pilotalekuan, 1.000 pezetaren truke.



XXVIII. Haurren Euskal Jaiak dantzaz jantziko du herria datorren domekan

Dantzari ugari izango dugu herrian datorren domekan, hilak 27. Izan ere, Haurren Euskal Jaiaren hogeita zortzigarren aldia ospatuko dute hainbat umek. Bergarako taldeei dagokienez, lau taldek parte hartuko dute: iaz sortutako Gazte Alai taldeak (sei urtetik gorako umeak) eta San Martin, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastetxeetako bana taldek (bost urtetik beherako umeak).

Kanpotik bederatzi talde etorriko dira: Orereta, Soraluze, Azkoitia, Urretxu, Gortiz, Oñati, Arrasate (bi talde) eta Aretxabaletakoak, hain zuzen ere. Talde guztiak kontuan hartuta, orotara hamalau, 440 ume inguru arituko dira dantzan herriko kaleetan. Eta musikariek eta laguntzaileekin batera, 540etik gora izango dira ka-



Domekan, 440 haur inguru arituko dira dantzan.

ARTXIBOA

lez kale ibiliko direnak datorren domekan.

Azken urteetan gertatu ohi denaren antzera, aurten ere arazoak daude kanpotik datozen ume horiek guztiak bazkalorduan etxeetan kokatzeko. Beste herri batzuetatik datozenak 300 inguru badira, guztiak bazkalduko du etxeren batean. Lagun-

tzaile eta musikariek elkarrekin bazkalduko dute.

DANTZAK NON-NAHI

Egun horretako ekitaldiak 10:30ean hasiko dira. Ordu horretan talde guztiak Seminarioko patioan batuko dira. Hamarretakoa egin eta gero, 10:45ean talde guztiak txistulariek diana joko

dute herriko kaleetan.

11:30ean, ohiturari jarraituz, alkate txikiak ongi etorria egingo dute San Martin plazan, eta gero dantza saioak hasiko dira: taldeek herrian banatuta egingo dute dantza.

13:30ean umeak bazkaldera joango dira, eta 17:30ean eguneko ekitaldi nagusia hasiko da, dantzen alardea hain justu ere. San Martin plazan izango da alardea, eta honako dantza hauek eskainiko dituzte dantzariak: mutilek 'Jorrai dantza', 'Txakarrankoa' eta 'Banakoa'; neskek 'Makil txiki', 'Esku dantza' eta 'Arku dantza'; neska-mutilek, elkarrekin, 'Ikurrin dantza', 'Txulalari' eta 'Zapatain dantza'. Horrez guztiaz gain, egun osoan txarangak, trikitilariak eta dultzaineroak izango dira kaleak alaitzen.

Miguel Altuna institutua interneten

Duela bi astetik hona, Miguel Altuna institutua interneten aurki dezakegu, www.imaltuna.com helbidetan hain justu ere. Web gune horretan institutuaren gaineko informazioa dago: ikastetxearen kokapena, eskaintzen dituen ikasketak, instalazioak... Guztia argazkiz lagunduta, eta hiru hizkuntzatan: euskara, gaztelania eta ingelesa.

Web gunea ikastetxeko bertako irakasleek eraiki dute, eta Miguel Altuna institutuko zuzendari Jose Mari Larrañagaren arabera, «erronka handia izan da eta ordu askoko lana».

Interneten gune propioa izan aurretik, eskolaren gaineko informazioa CD-ROM batean bildu zuten. Hala eta guztiz ere, diskoarekin alderatuz, internetek abantaila gehiago dituela aipatu du Larrañagak, «web orrialdeak eguneratzeko aukera eskaintzen duelako». Aurrera begira ikasleen notak ere interneten jartzeko asmoa dute Miguel Altunan.

INFORMATIKA ZERBITZUA

Bestalde, irailean, ordenagailu zerbitzua jarri zuen abian Miguel Altunak. Zerbitzu irekia da, hau da, edozeinek erabil dezake, nahiz



Irudiotakoa da Miguel Altuna institutuko web generako ataria.

eta institutuko ikasle izan ez, eta doan da. Erabiltzaile izateko baldintza bakarra da hamasei urtetik gorakoa iza-

tea. Astelehenetik zapatara dago irekita, arratsaldean, eta dagoeneko 4.000 lagun inguruk erabili dute.

Bai Euskal Herriari ekimenak badu lantaldea herrian

Hainbat lagunek Bai Euskal Herriari ekimena aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:30ean. Nazio osorako aurkezpena ekainaren 10ean egin zuten Donostian. Bergaran ere sortu da ekimenaren alde egingo duen taldea eta gaur aurkeztuko dute euren burua.

Herri ekimen hori aspalditik nazio eraikuntzan nahiz desobediencia lan egiten duten hainbat lagunek osatuta dago: abokatu eskaldunak, solidarioak, euskaltzaleak... Azken batean ondorengo egiaztapenak biltzen ditu horiek guztiak: Euskal Herria herri bat da, nazio bat da. Eta herria den neurrian, eskubide zibil eta politikoak dagozkio.

Espainiako eta Frantziako estatuek, baina, urratu egiten dituzte etengabe eta eskubide horiek, ekimeneko kideen ustez. Funtsean akulturazio egoera bizi dugula uste dute, «eta hori bai



Honelako kartelak jarriko dituzte herriko kaleetan egubakoitzetik aurrera.

no zapalkuntza handiagorik edo larriagorik ez dago».

DEFENTSA HELBURU

Horren guztiaren aurrean, Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoaren defentsa egitea eta horiek betetzea du xede ekimenak; «ez, aldiz, aldarrikatzea».

Helburua hori izanik, dagoeneko hainbat ekimen garatu ditu ekimenak. Ezagunena, euskal herritartasun Nazio Agiria sortzeko

eta ofizialtzeko asmoz bildutako sinadurak. Bergaran 1.200 inguru bildu zituzten; Euskal Herrian, 121.000. Bestalde, esparru eta ideologia ezberdineko jendea atxikitu zaio ekimenari.

Aurrera begira, ekimenaren lehentasun nagusia da herri eta auzoetan helburu horiek sostengatu eta babestuko dituzten taldeak sortzea. Bergaran sortu berri dute eta gaur egingo dute prentsaurreko aurkezpena.

Pazkoetako txekorketa ekainaren 3an izango da

Zezenzaleak taldeak Abdon Juaristi pintura lehiaketako kartel irabazlea aurkeztu zuen atzo, eguena, kultura etxean. Jose Abel Sanchez margolari bilbotarrak irabazi du ekitaldia, 'Llevando la manada' lanarekin. Lanak kultura etxeko erakustokian izango dira ikusgai domekara arte. Pazkoetako txekorketan, ekainaren 3an, Ekuadorreko Curro Reyes eta Salamancako Jose Cascon toeroek Lorenzo Rodriguezen Espioja ganadutegiko txekorrak txuliatuko dituzte. Sarrerak 2.500 (hesia) eta 2.000 pezetan (tendidua) jarriko dira salgai.

Bestalde, datorren zapatuan, ekainaren 2an, Euskadiko errekor-tadoreen II. Txapelketa jokatu da Bergaran, 18:00etatik aurrera. Herriko bi bikotek hartuko dute parte.



KORTA-ZAR

Txokolategia

Berriro zuekin!

Barrenkalea, 16 ☎ 943 76 20 62

Berrigara

453 zenbakia.
2001eko maiatzaren 25a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Dihan Vega,
Usso Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Juan Martin Elempuru, Arantzako Oregi,
Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.500 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



atrebentzia ezpada

Sasoia dala-eta, ezkontzetara juatia gustatzen jatzu? Zergaittik?



Amaia Bengoa

Gustau bai, baiña diru asko gastatzen da. Urtian bat ondo dago, baiña gehixau... Aurten bi eduki dittut eta beste bat geratzen jat.



Raquel Antolin

Asko gustatzen jat. Gizonak esaten dau diru asko gastatzen dala, baiña ni oso pozik juten naiz. Aspaldixan ez dot eduki.



Sabas Igartua

Gustatzen jat. Giro ona egoten da, jende ezaguna... eta bazkarixa be ederra izaten da.



Maite Irazola

Bai, baiña aspaldi ez jat tokau. Batez be giruagaittik gustatzen jat, eta jende ezagun asko egoten dalako.



Xabier Gabilondo

Bai eta ez. Bezperan perezia emoten dosta. Behin girotutakuan, ondo pasatzen dot.



Julio Vicente

Entierruetara baiño nahixago. Etxekuak-eta izan ezkeru, familixakuekin-eta, asko gustatzen jat. Ondo jan, dantza egin eta...

tira biraka oihan vega



adituen esanetan

Antsietatea

Antsietatea eta angustia asko izaten ditugun arazoak dira. Biek ere antzerako sintomak dituzte, baina angustia gorputzaren bidez azaltzen da (takikardiak, palpazioak, izerdia...) eta antsietatea, aldiz, psikikoa da (kontrola galtzeko beldurra, ideia obsesiboak...). Gorputzak, azken batean, barruan dugun ondorezari buruz hitz egiten du. Angustiaren oinarria zerbait txarra gertatu behar zaigula pentsatzea da. Kontrolatzerik ez daukagun etorkizunaren aurrean defentsa



PAKITA URKAREGI

Psikologoa

«Gizarteak idealizaziora, perfekzioaren idejara bultzatzen gaitu eta horrek frustraziora garamatza»


mekanismoa litzateke, eta orduan fobiak ager daitezke. Angustiak, azken batean, geldiarazi egiten gaitu, beldurak tartean izaten direlako.

Bizitzaren une jakin batzuetan jasaten dugun hutsunea jasangaitza izan dakiguke eta horri aurre egiteko modurik onena gure arazoak hitzez adieraztea da. Angustiak egia estaltzen duten sintomak sortzen ditu, eta sintoma horien atzetik zer dagoen jakiteko espezialista batengana jo dezakegu, psiko-

terapia edo psikoanaliaren bidez norberak nahi duenaren aurrean modu osasungarriagoan jartzeko. Botikek ere sintomak leundu ditzakete, baina ez dute laguntzen gertatzen zaiguna ulertzeko. Bestalde, antsietatea edo angustia agertzen direnean, hainbat jendek, betetasun sentazioak bilatzen ditu alkoholarekin, janariarekin edo drogekin, hutsuneak konpentsatzeko. Baina denok dakigu horrek zer nolako ondorioak ekartzen dituen.

Gaurko gizarteak etengabeko idealiza-

ziora, perfekzioaren idejara bultzatzen gaitu, eta horrek frustraziora garamatza askotan, ezin gaitezkeelako modelo ideal guztietara iritsi, ezinezkoa da. Mehatxuzko etorkizunarekin kezkatu beharrean, oraina bizitzen eta gauzak erlatibizatzen jakin behar da. Oraina biziz etorkizun osasungarri baterako bidea egingo dugu. Gure mugak non dauden onartzen jakitea ezinbestekoa da, antsietatea edo angustiaren sintomak saihestu ahal izateko.



Angustia eta antsietatearekin beldurak eta fobiak agertzen dira.

kaleen izenak

Koldo Eleizalde kalea

Behin baino gehiagotan aipatutakoa Bergarako kale izendegian "Koldo Eleizalde" kalea ere azaltzen da. Rekalde jauregiaren (Goiko kondekoaren) ondoan hasten da eta moja zaharren ortuko paretaren kontra segitzen du, Elosuko bidearekin topo egiten arte.

Koldo Eleizalde Bergaran jaio zen 1878ko ekainaren 8an, Goenkale 3an hain justu ere. Eusko Ikaskuntzak omendaldia egin zion 1930ean gure herrian egindako V. Kongresuan eta bere jaiotetxean gaur egun dagoen plaka ipini zuen. Zera jartzen du plaka horretan: "Etxe onetan Eleizaldetar Koldobika jayozan. Bere erriaren jakintza-aldeko gogo sutsuari oroimen au eskeintzen dautso Eusko-Ikaskuntza'k".


Gazterik hil zen, 45 urterekin. Hala eta guztiz ere, bere bizitzan politika, hizkuntzalaritza, literatura, hezkuntza eta kazetaritza landu zituen. Zientzietan lizentziaduna zen eta ogibidez institutuko katedraduna izan zen. Euskal kulturaren lan handia egin zuen, bai Eusko Ikaskuntzan eta baita Euskaltzaindian ere. Politikan Sabino Arana Goiriaren jarraitzaile eta lankide izan zen; 1901erako 'Euzkadi' aldizkarian idazten zuen eta geroago zuzendaria ere izan zen. Gasteizeko institutuan lanean jardun zuen bitartean (1906tik 1919a arte) Araban EAJko hautagai izan zen. Bilbora bizi izatera joan zen Bizkaiko Aldundiak hezkuntzako ikuskatzaile izendatu zuenean. Berehala gaixotu zen eta ebakuntza asko izan eta gero, 1923an hil zen.

1998an, Koldo Eleizalde hil zeneko 75. urteurrenean, haren gaineko bi libururik argitaratu ziren: bata 'Koldo Eleizalde' izenekoa, Bergarako Udalak Eusko Ikaskuntzarekin batera Lankidetzan bilduman ateratakoa, eta bestea Sabino Arana Kultur Elkargoak kalera-tutakoa, 'Luis Eleizalde, un vasco poli-facético' titulupean.

Testua: Arantazu Oregi, Udal artxibozaina.

Zezen-plaza jartzeko prestaketak

Eguaztenean hasi ziren hondeatzeko makinak **autobus geltoki osteko gunea lautu** eta zezen-plaza jartzeko prestatzen. Joan den astean bota zuten han zegoen txabola. Duela aste batzuetatik hona, nahiko aldatu da gunea hura; izan ere, lehendabizi han zegoen eraikin bat bota zuten; gero, geltokiko markesinak tokiz aldatu eta han zeuden bi zuhaitz ere bota zituzten. Orain, ia guztia prest dago jaietarako zezen-plaza jartzeko.



Musika Eskolakoak Lezon

Joan zen zapatuan, maiatzak 19, Lezon izan ziren Musika Eskolako ikasleak. Izan ere, **Musikaldiren bosgarren aldia** ospatu zuten, Lezoko Tomas Garbizu Musika Eskolako antolatuta. **2.000 musikaririk** parte hartu zuten Musikaldi horretan; **Bergaratik 160 ume** joan ziren, lau taldetan banatuta. Egun osoan, nola ez, musika izan zen protagonista nagusia, eta herrian jarrita zeuden zortzi agertokiaren aritu ziren ikasleak, euren emanaldiak eskaintzen. Arratsaldean, berriz, 18:00etan, erromerian dantzarako aukera ere izan zuten, eta giro ederrean ibili ziren, bai, Bergarako neska-mutikoak ere!

SANTOS



TIEN 21

Elektrikako tresnak eta argiztapena

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK, BATAIOAK,
KINTOENTZAKO
BAZKARIAK...



ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Arte kale 6 Tf.: 943 76 13 29

Gizonak eta bixak 1966ko maiatzaren 17xan Antxoni taberna ireki zebenetik bertan ibili da lanian. Aurretik beste zortzi urte ibili zan La Parra tabernan, San Antonion. Orain jubilatzeke ordua heldu jako eta tabernia alkilerrian jarri dau.

Antxoni Txintxurreta

Penarik taberna lagatzeagatik?

Pixka bat. Tabernan egotera ohittuta nago eta oin bizimodu berrira ohitu bihar...

Antxoni guztiz jubilauro jaku?

Bai, oin etxia ondo ipini eta ahalik eta ondoen bizitzeko asmua daukat.

Zergaittik jarri dozue taberna alkilerrian?

Etxean ez zegoen erreleborik eta Miren Otañok hartu dau alkilerrian.

Tabernari baten beharrezko koalidadea?

Gustau egin bihar jatzu, bestela akabo. Ni goizetik gabera egoten nintzan.

Tabernako gauzarik onena?

Mostradorian jendearekin egon eta sukaldeko lana gustatzen jaten.

Zeinek erakutsi zotzun sukaldari lanak?

Urretxuko Ezkiotarra tabernan neskame egon nintzanian ikasi neban.

Zure espezialidadia?

Legatza euskal erara edo rapia.

Eta gustoko janari bat?

Arraultza frijittuak urdaixakin.

Edari bat?

Ura, gas barik.

Zer gosaltzen dozu?

Kafesnia.

Telebisiñua ala irratixa?

Telebisiñua.

Programa bat?

Euzkitzerena, *Sorginen laratza*. Bertin

Osborne be gustatzen jat.

Egunkarixan, zer irakurtzen dozu lehenengo?

Bergarako kartia eta eskelak.

Horoskopua irakurtzen dozu?

Gutxitan. Sekula ez doste asmatzen.

Zure bertute eta defektu bat?

Umore onekoa naizela eta, aldi berian, jenixo txarra daukatela.

Zeintzuk dira zure afiziñuak?

Kirolak: pelotia, futbola...

Nork irabaziko dau eskuz banakako txapelketia?

Eugik, 22-14.

Reala ikustera juten zara?

Gutxi, baiña orain gehixagotan jun ahal izango naiz.

Zelako musikia gustatzen jatzu?

Alaia, Los Incansables-ena. 22 urtian etorri izan dira Pazkuetan tabernara...

Zer egingo dozu Pazkuetan?

Herrixan ibilli. Dantzan egin eta jai hartu.

Urtaro bat?

Udaberrixa.

Loterixan 500 milloi irabazi ezkerro?

Biajau, dana gastau arte. Zelan orain arte ez doten egin...

Biaje bat, nora?

Buenos Aires ezagutzia gustauko jaten.



BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Parrañaga

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA

Gozogintzan aitzindari.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

Biko

BOKATEGIA


rock & roll nazkatu arte!!!

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

BERGARA HORTZ KLINIKA

Odontologia orokorra
Protesiak
Ezarpnaka
Hortzen estetika
Ortodontzia

Bidekurutzeta, 6
943 76 05 77



Eskola Industrialia hantxe jartzeko, Errege Mintegia handitu egin zuten. Argazkian, handitze proiektuko plano bat.

Bergara, industria ingeniariartzaren sorleku

Zapatuan Bergarako eskola industrialari buruzko liburua aurkeztuko dute

Duela 150 urte sortu zen industria ingeniariaritz, eta Bergara izan zen orduko protagonistetako bat. Izan ere, industria ikasketak eskaintzen zituzten eskoletako bat Bergaran ezarri zuten, Errege Mintegian, hain justu. Horregatik, maiatzaren 26an, zapatua, omenaldia egingo diote Bergarari, eta urteurren hori ospatzeko argitaratu duten liburua ere aurkeztuko dute.

EAEko Ingeñariaren Elkargoek eskainiko diote omenaldia Bergarari. 12:00etan Errege Mintegiko eraikinean, Eskola Zientifiko-Industrialia sor-

tu zen eraikinean, hain justu, oroime-
nezko plaka bat jarriko dute. Ondoren,
12:30ean, liburuaren aurkezpena egin-
go dute eta bertan izango dira liburu-
aren egileak: Jose Llombart, Ines Pellon

eta Maria Cinta Caballer. "La Escuela Industrial de Vergara (1851-1860)" izen-
burua darama. Zapatuan, aurkezpena-
ren ostean, salgai jarriko dituzte libu-
ruak, 1.500 pezetan.



Silvestre Muñoz, s.l.

pinturak

Pintura-lanak orokorrean

Pintura industrialia

Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

LONBIDE

ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57



1850eko ERREGE DEKRETUA

Merkataritza, Irakaskuntza eta Herrilantarako Ministerioak 1850ean argitaratu emandako Errege Dekretu bat jotzen dute industria ingeniartzaren sorrerako akta. Errege Dekretu horrek industria irakaskuntza definitu eta ikasketa horien nondik norakoak zehazten zituen. Industria irakaskuntza hiru mailatan banatzen zuen: oinarrizkoa, sakontze-koa eta goi mailakoa.

SAKONTZE ESKOLA BERGARAN

Oinarrizko maila, lanbide heziketaren antzerakoa, hamar urtetik gorakoentzat zen. Amaitutakoan, "Industria Lanbide-etarako Gaitasuna" frogatzen zuen ziurtagiria jasotzen zuten ikasleek. Bergarako Eskola Zientifiko-Industrialak sakontze eskola zen, industria irakaskuntzan erdi mailakoa. Eskola horiek Bartzelonan, Sevillan eta Bergaran bakarrik ematen zituzten. Sakontze eskoletan hiru ikasturte egiten zituzten, eta irakasle industrialaren titulua ematen zieten. Bazeuden laugarren eta bosgarren mailak ere, kimika edo mekanika ikasketeko.

BEDERATZI URTEKO IBILBIDEA

1860an itxi egin behar izan zuten. 1857an, Sustapen Ministerioak irakaskuntzaren berrantolaketa egin zuen Hezkuntza Publikoaren Legearen bitartez. Lege horren arabera, hamar unibertsitate egongo ziren, horietatik bat ere ez Euskal Herrian. Baina, irakaskuntza teknikoari dagokionez, Bergaran, sakontze eskola zena, goi-mailako eskola izango zen aurrerantzean. Dena

REAL SEMINARIO CIENTIFICO INDUSTRIAL DE VERGARA.

Estado que manifiesta la conducta académica que han observado en el 1.º curso especial de matemáticas del año académico 1857 á 1858 los alumnos matriculados en la asignatura de 1.º año especial de matemáticas.

ALUMNOS.	FALTAS.		CASTIGOS.	COMPORTAMIENTO.	APLICACION.	APROVECHAMIENTO.
	J.	V.				
Alonso (D. Tomas)				Bueno	Buena	Sobreluciente
Alonso (D. Manuel)				B	Mala	Malo
Alonso (D. Indalecio)				B	Mediana	Mediano
Alonso (D. Francisco)				B	Mala	Malo
Alonso (D. Francisco)				B	Mala	Malo
Alonso (D. Antonio)				B	Mediana	Mediano
Alonso (D. Angel)				B	Buena	Bueno
Alonso (D. Jose)				B	Buena	Bueno
Alonso (D. Juan)				B	Mediana	Mediano
Alonso (D. Luis)				B	Mediana	Mediano
Alonso (D. Joaquin)				B	Mediana	Mediano
Alonso (D. Anttonato)				B	Mala	Malo

Bergarako Eskola Industrialeko dokumento bat: ikasturteko kalifikazioak.

delako, gastuak Foru Aldundien gain geratuko ziren, eta Gipuzkoakoak gastuok bere gain ez hartzeko erabakia hartu zuenez, Bergarako eskola itxi egin behar izan zuten.

ZERGATIK BERGARAN?

Esan bezala, eskola tekniko hauek, Bergaraz gain, Bartzelonan eta Sevillan ezarri zituzten. Besteekin alderatuz herri txikia zen Bergara. Orduan, zergatik aukeratu zuten gure herria? Adituen usitez, bere tradizio eta historiagatik, zientzia eta industria arloan erakutsitako eskarmentuagatik, hain zuzen ere. Hona hemen Bergarak alor horietan zuten es-

karmentuaren pare bat adibide: 1593. urtean jesuitek ikastetxe bat zabaldu zuten Bergaran. 1767ra arte lan egin zuten "Jesusen Konpainiaren Ikastetxeak" Bergaran. 1764an, berriz, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak eratu zuten Bergaran. Euren helburu nagusiak nekazaritza, industria eta herriko zaldun gazteen irakaskuntza bultzatzea ziren, eta Errege Mintegian ikasketa horiek guztiak eskaini zituzten.

Mintegiko Fisika, Kimika, Mineralogia eta Metalurgiako irakasleen artean, oso zientzialari narbarmenak ere badiugu, hala nola, Chabaneau edo Proust. Bestalde, 1783ko aurkikuntza ere azpimarratzekoa izan zen: Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaiek metal berri bat isolatzea lortu zuten: wolframioa. Bergara, beraz, zientzia eta industria alorrean ez zen atzera geratzen lanbide eskolak zabaldu baino lehen ere, eta, antza, hori ere ikasketa hauetarako Bergara aukeratzeko arrazoia izan zen.<

Bartzelonan, Sevillan eta Bergaran bakarrik ematen zituzten industria arloko sakontze eskolak

ANTXONI

jatetxea eta taberna

Berriz ere zuekin! Zatoz astelehenean 20:00etan!

Nesken eta gizonezkoen futbol partiduak Ipintzan uztaileira arte

Abian da Lagunak kirol elkarteak antolatutako Ipintzako adin mugarik gabeko txapelketa. Senior mailan 21 talde ari dira eta beteranotan zortzi. Bestalde, eguaztenean, hilak 30, nesken txapelketa hasiko da.

Joan den egunean, adin mugarik gabeko txapelketa hasi zen. Txapelketa horretan 21 talde izango dira lehian, eta lau multzo osatu dira: A multzoan Bildurbarek Opel Lam, Killer's, Tojhu, Torrekua, Altos Pornos eta La Juve egongo dira; B multzoan, Los Pepinos, Osintxui, Txokokuak, Getokoak eta Fo-Fo-Fo; C multzoan Game Over, Mongitxurak, Mongitxurak, Gore eta A Ze Flaxa-La Gui-



Mongitxurak taldeak 3-0 irabazi zion Mongitxurak taldeari astelehenean.

puzcoana; eta D multzoan Drink Team, Arloteak, Down, Matxakategi eta Angiozar taldeek jokatuko dute elkarren aurka. Partiduak itzuli bakarrera jokatuko dira eta multzo bakoitzeko bi lehenak sailkatuko dira final-laurdenetarako.

Bestalde, 30 urtetik gorako beteranoen Zazpiko Futbol txapelketan zortzi taldek eman dute izena: Ezinleike, A Ze Flaxa, Arloteak, Bildurbarek Opel Lam, Guipuzcoana, Bar Canalejas, Amilotx eta Angiozar. Hori ere itzuli ba-

karrera jokatuko da, eta sailkapeneko lehenbiziko laurek finalerdiak jokatuko dituzte.

NESSAK EGUAZTENEAN

Bestalde, nesken txapelketan hiru maila bereiztu dira adinaren arabera: seniorretan zazpi talde izango dira lehian, kadete mailan beste sei eta alebinetan beste lau. Nesken txapelketako partiduak eguaztenean, hilak 30, hasiko dira jokatzen. Alebin mailako txapelketa ekainean jokatuko da eta beste biak ekainean eta uztailean. Guztira, 700 jokalaririk inguru ari dira Ipintzan. Finalak uztailearen erdialdean jokatuko dira eta uztailearen 6an Jose Antonio Kortabarria "Mostu" zenari omenaldia egingo diote.

Badminton harrobia

Argazkian agertzen diren gaztetxoek bigarren postua eskuratu zuten joan zen maiatzaren 12an Donostian jokatutako eskolarteko taldekako txapelketan. Beste eskola batzuetako lau talderen aurka banakako partiduak jokatu ondoren, Raul Sanchez, Josu Gonzalez, Aitor Gomez eta Aitor Jaso bergararrak azpitxapelkunak izan genituen: lehen hirurak infantil mailan ari dira eta Aitor Jaso, berriz, kadete mailan. Argazkian eskuratutako trofeoarekin eta dominekin ikus ditzakezue. Astero martitzen eta eguenean entrenatzen dira Miguel Altuna institutu berrian, 18:30etik 20:30era.



BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA

☎ 943 76 11 99 / 14 47.

Faxa: 943 76 04 77

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

Ariznoa taldea Gipuzkoako txapelketan izango da zapatuan

Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak zapatuan, hilak 26, Ibarren jokatu den Gipuzkoako txapelketan parte hartuko du. Taldeko txapelketan alebin taldea Sarai Gallegok, Eider Carrascok, Sarai Ruizek, Amaia Markiegik eta Peregrina Nsuek osatuko dute. Era berean, Sarai Gallego banakako proban ere izango da. Infantiletan, Irati Arteaga, Virginia Odriozola, Maialen Legorburu, Naiara Cantero eta Izargi Vega taldekako

proban izango dira eta Irati Arteaga eta Virginia Odriozola banaka ere arituko dira. Azkenik, kadete mailako Maialen Toledo, Uxue Arregi eta Iratiz Gastiain gimnastek banakako proban esku hartuko dute.

Sonia Corredera Ariznoako entrenatzailearen arabera, «aurretik Bergaran eta Arrasaten jokatuako sailkatze probetan maila ona erakutsi genuen. Ea zapatuan ere gauzak ondo ateratzen zaizkigun».



Ariznoa taldeko gimnastak Labegaraietan ateratako argazkian.

ARKAITZ ARANA / Bergara futbol taldeko jokalaria

«Gure helburua 3. mailara bueltatzea da»

Lau urteko geldialdia tartean, Arkaitz Aranak (26 urte) zortzigarren denboraldia bete du Bergara futbol taldean. Erdilari bergararrak etxeko partiduetako jokalaria onenari BERRIGARAK emandako saria eskuratu du.

G. Lehen itzulera hain ona egin eta gero, ezin izan diozue mailari eutsi.

E. Bigarren itzuleran lau partidu besterik ez dugu irabazi eta gainerako guztiak galdu. Partidu askotan zortea falta izan zaigu eta konfiantza galduz joan gara. Lesioak ere izan dira tartean eta hori ere erabakigarria izan da mailaz jaisteko.

G. Zeintzuk izan dira partidu erabakigarriak?

E. Zuzeneko arerioen kontra huts egiteak kalte handia egin digu.

G. Joan den denboralditik aurtengora al daketarik sumatu duzu?

E. Iaz, lehen jardunalditik, behean izan ginen, sufritzen. Aurten, berriaz, lehen itzulia bukatu ostean ez genuen uste mailaz jaitsiko ginenik.

G. Jaitsitako hiru taldeak gipuzkoarrak izan zarete.

E. Joan den urtean ere Elgoibar eta Tolosa jaitsi ziren eta aurten Gipuz-


koako beste hiru talde. Bizkaitarrek aurrekontu handiagoak eta talde indartsuak dituzte.

G. Zu zeu pozik zaude egindako denboraldiarekin?

E. Aurreko urtean baino hobeto ibili naiz eta minutu asko jokatu ditut. Orokorrean, gustura jokatu dut.

G. Hurrengo denboraldian, zer?

E. Futbola lagatzeko asmoa nuen, baina azken erabakia uztailan jakinarazi diot entrenatzaileari. Gure helburua hiru garren mailara bueltatzea izango da.



Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

**PISZINETAKO
TABERNA**

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



Labegaraietako futbito txapelketa



Ligako finalerdiak

Astebukaeran ligako final-laurdenak eta finalerdiak jokatu dituzte. Errotagain eta Mongatxurra sailkatuta daude dagoneko eta beste semifinalistak zapatuan jokatu diren kanporaketatik aterako dira. Bestalde, Bar Ugartek (argazkian) eta Errotagainek kopako finala jokatu dute. Bar Ugartek Bayer (7-5) eta A Ze Flaxa (8-0) taldeak kanporatu zituen final laurdernetan eta Errotagainek, berriaz, Eri taldeari irabazi zion finalerdietan (5-3). Finalak Pazko-ostenen jokatu dituzte.

ARGI!

Bi jokalarizigortuta

Bar Ugarte taldeko Paco Martinez jokalaritari hiru partiduko zigorra ezarri dio antolaketa batzordeak, Bayerren kontrako partiduan bi txartel hori ikusi eta gero. Bestalde, antolatzailerek Bayer taldearen portaera goraipatu nahi izan dute aipatutako partiduan. Bestalde, Kanpazar Harrobia taldeko Joseba Onsoño jokariarik ere partidu bateko zigorra bete beharko du astebukaeran.

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN, LIGA

- 12:30: Bar Ugarte-Bayer Antolaketa
 16:00: Kanpazar Harrobia-A Ze Flaxa Antolaketa
DOMEKAN BARRUAN, KOPA
 17:00: Errotagain-Kanpazar/A Ze Flaxa Mongatxurra
 18:00: Bar Ugarte/Bayer-Mongatxurra Errotagain

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	54	22
2. Errotagain	52	22
3. Bildurbarek Opel Lam	43	22
4. Amoskibar	39	22
5. Pagomendi	34	22
6. Bar Canalejas	32	22
7. Fac	27	22
8. Eri	22	22
9. Irubide jatebtea	18	22
10. Torrekua	7	22
11. Apa Oxemai	4	22

B multzoa

	P	J
1. Ortzí	42	19
2. Kanpazar Harrobia	41	19
3. Bayer	32	19
4. Amilox	31	19
5. Aluminios Kresala	30	19
6. Agirrebeña jatebtea	18	19
7. Vacalouras	15	19
8. Cine Bank Irimo	11	19
9. Etegabe	4	19

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	39	17
2. Artusamak	37	17
3. Mongatxurra	36	17
4. Guadalest	27	17
5. Komando Piperrak	25	17
6. Shaktale	17	17
7. Txipiron	16	17
8. Patxaran Team	8	17

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:



Irizar 2
 ☎ 943 76 14 95

**JAUJA
 KIROLAK**



OGIZUN
 koop. elk.
 okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
 BERGARA OÑATI
 943 76 20 49 943 78 24 13

Erregionala txapelketa

Bigarren erregionalako Bergarako futbol taldeak 2-1 irabazi zion Ondarroako Aurrera taldeari, txapelketa arteko finalean. Unai Rollanek eta Mikel Lasak egin zituzten mahoneroen golak. Igoera lortu eta gero, Karlos Lasaren mutilek amaiera ezin hobea eman diote ligari.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-San Martzial
 Ohorezko mailako gazteak
 Zapatua. 16:45. Agorrosin
Bergara-Ilintxa
 Lehen mailako gazteak
 Zapatua. 18:45. Agorrosin

SASKIBALOA

Bergara-Arrasate
 Kadete mutilak.
 Zapatua. 18:30. Kiroldegia

PILOTA

Herri arteko txapelketa Bergara-Azpeitia
 Egubakbitza, hilak 25, Udal Pilotalekuan, 19:30ean
Bergara Hiria
 Martitzenean, Udal Pilotalekuan, 19:30ean

ipintzako txapelketa

SENIORRAK

Tojhu-Torrekua Zapatua. 9:00.
Los Pepinos-Fo Fo Fo Zapatua. 10:15.
Game Over-Gore Zapatua. 11:15
Drink Team-Angiozar Zapatua. 12:30.
Txokokuak-Getokoak Astelehena. 19:15.
Bildurbarek-A. Pornos Astelehena. 20:30.
Killer's-La Juve Martitzena. 19:15.
Mongatx.-A Ze Flaxa Martitzena. 20:30.
Down-Matxakategi Eguaztena. 19:15.

NESKAK

Ou Pitxu Ou-Ogizun (seniorrak)
 Eguaztena. 21:00
Alebinak, bi partidu
 Egubakoitza, ekainak 1, 1. 18:00.
Fashion-Fashion-Mariaren Lagundia eta
Jo ta ke-Elgeta (kadeteak)
 Egubakoitza, ekainak 1. 19:00.
Txotx-Eibartarrak (kadeteak) eta
Potzu-Arloteak (seniorrak)
 Egubakoitza, ekainak 1. 20:00
Pentol's Team-Ou Pitxu Ou eta
Ogizun-Lai Lai (seniorrak)
 Egubakoitza, ekainak 1. 21:00.

FUTBOL 7

Guipucoana-Bar Canalejas eta
Angiozar-Amilox Eguena. 19:30.
Bildurbarek Opel Lam-Arloteak eta
A Ze Flaxa-Ezinleike Eguena. 20:30.



GASTON Y  DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA


Inglesina



Banatzaile ofiziala

Antonio Bouzas

LEHEN «BOUZAS-VILLAR»



Margoak

eta

dekorazioa

Zurradero 8, 1-A BERGARA 943 76 06 12 / 689 805 802



MIGUEL ANGEL ELKORREZIBAR

bonofotoa


Hona hemen Arruriaga kaleko atari batean dagoen Pentekoste jaiei buruzko N. Mujikaren marrazkia. Noiz izaten da Pentekoste?

galde debalde

1. 'Bialeku' hitza hiru hauek zein esanahirekin parekatuko zenuke?
 A- Gogoko lana
 B- Lan txarra
 C- Birendako lekua

2. XIX. mendeko zein urtetan itxi zuten Bergarako Eskola Industrialia?
 A- 1857an
 B- 1860an
 C- 1851n

3. Zein da Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko entrenatzailea?
 A- Helena Herreros
 B- Sonia Corredera
 C- Ane Miren Fernandez



Aurreko aleko saria **Karmen Aretxagarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Karmeni!
 Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
 Bonofotoa: **San Pedro kalea**
 Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-C**

Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileen artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**


San Miguel
 garagardoa, 6x25cl. packa
279 PTA!
 Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Bergara aldeko lexikoa liburu batean bilduko du Elexpuruk

Udalarekin sinatutako akordio baten bidez, Juan Martin Elexpuruk Bergara aldeko lexikoa bilduko du eta ondoren udalak argitara emango du. Bergarakoez gain, eskualdeko berba eta esapideak ere jasoko ditu Uberako idazlearen lanak.

Lan horren oinarria eskuartearen du dagoeneko Juan Martin Elexpuruk. Izan ere, urteetako lanaren ondorioz, 1996. urtean, 'Bergara aldeko lexikoa' lana, Doktoradutza tesizat aurkeztu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean.

Orain, lan hura osatu egingo du uberarrak. Udalarekin sinatutako akordio baten bidez, hark dirulaguntza emango dio Elexpururi lana



1996. urtean aurkeztutako gai bereko tesian oinarrituko da Elexpuru.

osatzeko. Ondoren, udalak argitara emango du, lanean interesatua baitago.

BI SARI

Horrela, aipatu tesi lana oinarritzat hartuz, hura zuzendu eta osatu egingo du berba eta esapide berriekin. Hau da, tesian jasota ez

dauden Bergarako berbak bilduko ditu Elexpuruk, eta baita lanak jasota ez dituen eskualdeko berba eta esapideak gehitu ere.

Bestalde, osagarri gisa erdara-euskara hiztegia ere izango du, eta Bergarako aditza eta deklinabidea, hiztegiaren bukaeran.

Amaiur Sainz,
Pazkoetako pegatina
lehiaketako irabazle

Jardun euskara elkartek antolatutako pegatina lehiaketak badu irabazlea: 23 urteko Amaiur Sainz bergararra.

Lehiaketaren xedea euskararekin lotura duen esaldi bat asmatzea da, Jardunek Pazkoetan kaleratzen dituen pegatinetarako hain justu ere. Hala ere, Pazkoetako egubakoitza arte ez dute esaldiak dioena jakinaraziko. Ekainaren 1ean jakingo dugu, hortaz, leloa. Halaber, 5.000 pegatina banatuko dituzte Jardunek. Aurtun 139 esaldi jaso dituzte euskara elkartekoek: batzuk, zentzu bikoitzeak, beste batzuk, oso zuzenak.

Muruamendiarazen 'Sutargi' lan berria

Bergarako dantzaria 'Sutargi' ikuskizun berria estreinatzeko prest dago. Muruamendiarazen hitzetan, lan berria ez da koreografia bat, ikuskizuna baizik. Azkenengo urteetan egindako lanak batzen dituen ikuskizuna hain justu. Aurrestreinaldia, Bergaran ez, baina hurbilean egingo du Murua-

mendiarazek, Elgetan hain zuzen ere, ekainaren 15ean, Espaloia antzokian, 22:30ean. Ostean Euskal Herri eta Estatuko hainbat herritan eskainiko du ikuskizun berria.

Muruamendiarazek 1997an 'Aukeran' koreografia sortu zuenetik estreinatu duen hirugarren lana da 'Su-

targi'. Taldearen izen beradaraman 'Aukeran' koreografia izan zen lehenengoa, eta 'Zirga-ezean' bigarrena. Biak Bergaran eskainiak.

Muruamendiarazen ikuskizunek oinarrian dantza tradizionala dute, eta horri nahiko berritzaile eta garaiak diren elementuak gehitzen dizkio.

Lazkao Txikiren
bat- bateko bertsoak

Xabier Amurizaren eskutik Lazkao Txikiren bertsoak entzuteko aukera izango da bihar, zapatua, 22:30ean, kartzela zaharrean. 'Lazkao Txiki, bat-bateko sorgina' emanaldian, haren bertso hautatuak kantatuko ditu Amurizak.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

*Irekiera
komisioa:
%0,25,
35 urte
bitarteraino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Batzokiko dantza taldea

Domekan, maiatzaren 26an, Euskal Jaia ospatuko da Bergaran eta inguruko herrietatik hainbat dantza talde etorriko dira herriko kaleak alaitzera. Bergaran aspalditik egon izan dira dantza taldeak eta horren adibide aste honetako erretratu zaharra duzue. Bertan agertzen direnek Batzokiko dantza taldea osatzen zuten

1920ko hamarkadan. Argazkia Bidekuruzte-ta kalean, Batzoki osteko ortuetan aterata omen dago. Honako hauek dituzue orduko dantzariak, ezkerretik eskumara:

Goian: Carmelo Otaola, Pedro Urzelai, Periko Bakaikoa, Zezilio Garitano, Jesus Urriategi eta Altuna.

Erdian: ezezaguna, Esteban Juaristi,

Peli Gallastegi, Felix Etxeberria, Juan Garmendia eta Jesus Okina.

Aurrean jarrita: Alejandro Garmendia, Osinaga, Jose Mari Idarreta, Bixente Murgoitio, Amenabar, Josuren Gabilondo eta Migel Iriarte 'Mitxelena'.

Argazkia: Felix Etxeberria, Bergara Udal Agiritegiko bilduma



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.

Tf. / faxa 943 76 59 53.

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

deco-tex ZANGUITU alfonbrak



Alfonbrak neurrita!



*Alfonbrak • Edredoiak • Funda nordikoak
Kortinak • Toailak • Izarak*

Herri lagunak 4. Tel.: 943 76 08 69



**MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA**

**INSTITUTO
DE MAQUINA
HERRAMIENTA**

INFORMAZIOA:

San Roke Auzoa, 1. ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel.: 943 744 132. Faxa: 943 744 153
Posta elektronikoa: amaia@fmh.es
www.fmh.es

2001-2002 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industria ekipoen mantentze lanak

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

Ekainaren 5ean atek zabalik, 19:00etan



Izena emateko epea:

ekainaren 1etik 12ra, biak barne

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

• Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herralde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauk dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzeraz bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.



GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS